

2026ko MAIATZAREN 28ko EBAZPENA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, "2026ko URTARRILA - EKAINA ALDIRAKO EHUko INTERNATIONAL WELCOME CENTREko BIDEO BITAKORA LEHIAKETA" ERABAKITZEN DUENA.

2026ko otsailaren 11n, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, "2026ko urtarrila - ekaina aldirako EHUko International Welcome Centreko bideo bitakora lehiaketaren" oinarriak onartu ziren, Erasmus+, Latinoamerika, Beste Destino eta SICUE programetako gradu eta master truke ikasleei zuzenduta.

2026ko maiatzaren 27an, deialdiaren 4.8 atalean aurreikusitako Balorazio Batzordeko kide guztiak bildu ziren.

Hori dela eta, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, "Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari eta eskumenak eskuordetzeari buruz EHUko errektoreak 2025eko urtarrilaren 27an onartutako Ebazpenaren" arabera eskuordeturik ditudan eskumenak erabiliz,

HONAKOA EBATZI DUT:

LEHENENGOA.- EHUko International Welcome Centrearen (2026ko urtarrila - ekaina) Bideo Bitakora Lehiaketako irabazleak honako hauek dira:

| | | |
|--------------------|------------------|--------------------------------|
| ARABAKO CAMPUSA | 1. saria – 300 € | Viktoria Giorgi |
| | 2. saria – 200 € | Adrián Andrés Aguirre Anchondo |
| BIZKAIKO CAMPUSA | 1. saria – 300 € | Ellinor Brandenburg |
| | 2. saria – 200 € | Julia Martins Malafaia |
| GIPUZKOAKO CAMPUSA | 1. saria – 300 € | Matías Ezequiel González |
| | 2. saria – 200 € | Miriam Romaniuc |

BIGARRENA.- Ebazpen hau eta haren eranskina argitaratu eta zabaltzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta horren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke dagozkion administrazioarekiko auzien epaitegietan, 2 hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke ebazpena eman duen organo berean, hilabeteko epean, egintza espresua bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek xedatutakoa betez.

Leioan, 2026ko maiatzaren 28an.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea